

Karlos Gorrindo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA ♦



INIGO AZKONA

Sindromeak

BIGARREN MAILAKO zelaietan jokatzeko ikusten du bere burua eroso EAJk. Bigarren mailako lehiaketan. Lehen mailakoak izu eszenikoa ematen dio. EAJren ideologian independentzia amets kimerikoa da. Hau da, neuk ere badut gure etxeko egongelako horman Everest mendia agertzen den argazki ederra. Everest dut amets, baina badakit ez naizela inoiz hara –gora– igoko. Beste hainbeste gertatzen zaio EAJri: independentziaren ametsetan bertigoa eta gonbito larria sartzen zaio bat-batean. Altuerako sindromea bizi du. Mendi maldan gustura, tontorrik egingo ez duela onartuta. EAJk gobernatzen dituen erakundeak, gainera, lokalak dira, ez dute estatu entitaterik adierazten. Ezti mamitan sentitzen da itxurakeriak egiten, gobernatzen dituen erakundeek eragin probintzianoa baino ez dutela jakinda. Nahikoa du botere politiko-ekonomiko-kultural kafeinagabea kudeatzearekin, Peter Panen sindromeak jota dabil EAJ, bizi-tzarekiko (politikarekiko) jarrera lumatu bako txori kumearenaren antzera, nagusi (independente) izateak sekulako kaltea eragingo diolakoan. Konforme da esku artean darabilen botere kuotarekin. Harro dago horretaz, gainera. Baina ez da konturatzen alderdi jostailua baino ez dela. Edo bai. Eta inoren menpe

Everest dut amets, baina badakit ez naizela inoiz hara –gora– igoko. Beste hainbeste gertatzen zaio EAJri: independentziaren ametsetan bertigoa eta gonbito larria sartzen zaio bat-batean. Altuerako sindromea bizi du

izateak segurtasuna ematen die. Nahiago du arrainontzian bizi, itsaso zabalean baino. Babestuta sentitzen da, Estokolmoko sindromea bizi du, jakin barik, edo jakinda, inoren legeen kudeatzaile-jopu baino ez dela. Bere bidea egiten jarraitzen du, bidea bera egitea duela helmuga. Eta bide horretan bidaide aukeratuak (PP-PSE) lehen mailan jokatzeko galarazi eta oztopatu egiten dioten berak dira. Baina zer ardura dio horrek: lehen maila, Everest tontorra, amets huts baino ez da.

Bestelako bidelagunak izateak Espainiaren gaitzespena ekarriko lioke eta EAJkoak oso leialak dira babes maternal eskaintzen diotenekin. Katalunian, oster, Esquerra Republicana (ERC) aukeratu dute bidelagun CíUkoek (Convergència i Unió), eta independentzia dute helburu. Eta ez autogobernu maila handiagoo, Itxaso Atutxak (EAJ) eskatu bezala, Andoni Ortuzar jaunak esandakoaren harira datorrena: “Gu beste bide batetik ari gara, beste lehen-

tasun batzuk ditugu, independentziaren eredu iraungita dago”. Eta hau argi geratu da Iñigo Urkulluk Ameriketara egin duen bidaia folklorikoan. Agente probintzianoa duen agintari zentsuratzailaren bidaia egin du, gainera. ■



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Izan otzana

ESKANDALUA zabaldu da Granadako artzapezpikutzak emakumeei ezkontzeko eta otzan izatera dei egiten dien liburua argitaratu duelako. “Ezkon zaitez eta izan zaitez otzana”, edo halako izenburua du perlak. Harrigarria egiten zaigu egun, halako zerbait, lasai zabaltzen ibiltzea batzuk.

Baina tira, oraindik norbaitek ezkondu eta men egitera bideratutako etorkizuna nahi badu, hor du bere *Biblia*; bide batez esateko, emakume batek idatzia. Beraz, ahotsa goratzeko, edo nahi duena egiteko gogo zipitzik sartzen bazaio, bertan izango ditu inpultsoei eusteko gomendioak. Emakumeengandik emakumeengana.

Baina pentsatzen jarrita, hain ageriko diren diskurtsoek beste hainbatek baino gutxiago izutzen naute. Izan ere, gehiago dira emakume moderno, ama, independente baina arduratsu, langile baina etxe-koandre, guapa baina zainduegia ez, irekia bai baina ez puta... eta halakoek iradokitzen dizkiguten mezu eskizofrenikoak.

Eta nago, horiek denak gehiagok barneratu eta bete nahi dituela, eta horretarako ez dago gida-libururik. Izan ere, gure artean diotsuet, nagoelako, ez dela halako emakumerik existitzen. ■

